



## **OINARRI ETA DEIALDI ESPEZIFIKOAK BANAKAKO EBALUAZIOAREN ARAUBIDEAN JABEKIDE-ERKIDEGOEI DIRULAGUNTZA KONPENTSATZAILEAK ETA OSAGARRIAK EMATEKO, TXONTA AUZOAN BIZITEGI-ERAIKINETAN BIRGAITZE ERAGINKORRA EGITEKO**

### **Lehenengoa.- Araudi erregulatzailerak.**

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak emateko araubidea hauex da:

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.
- Eibarko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra, Udalbatzarrak 2012ko azaroaren 26an egindako bilkuran onartu eta 2013ko urtarrilaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman zena.
- Deialdi honetan jasotako klausulak.

### **Bigarrena.- Dirulaguntzaren xedea.**

Oinarri-deialdi hauen xedea da Eibarko (Gipuzkoa) Txonta auzoko honako bizitegi-erakin hauen birgaitze eraginkorrerako dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea:

**Txonta 03, 15, 17, 25, 27, 29,44, 46, 48, 50 eta 52 zenbakiak.**

Dirulaguntzak **honako bi lerro hauetan** banatzen dira:

1. **Dirulaguntza konpentsatzaileak:** hauen helburua zera da: auzoko bizitegi-erakinak osorik birgaitzeko jabekide-erkidegoei dagoeneko emandako dirulaguntzak (2018ko uztailaren 24ko Osoko Bilkurak onartuak) osatzea, eta era horretan goian zerrendatutako Txonta kaleko eraikinen jabekide-erkidegoek kontratatutako birgaitze-obrak gauzatzeko kostuaren gehikuntza konpentsatzea, betiere gehikuntza horren jatorria obrarako erabilitako materialaren kostu-igoera baldin bada, azken urteetan izandako prezioen igoera orokorraren ondorioz eratorria; eta hori guztia aurrerago zehaztuko diren baldintza eta zehaztapenekin.
2. **Dirulaguntza osagarriak:** jabekide-erkidegoentzat, baldin eta eskaera egin duen eraikinaren birgaitze integraleko obrak egiteko eskubidea duten dirulaguntza guztien zenbatekoa, goian adierazitako konpentsatzaileak barne, obren kostu justifikatu osoaren % 60 baino TXIKIAGOA bada, BEZa barne.



### **Hirugarrena.- Diruz lagunduko diren gastuak.**

Honako hauek izango dira diruz lagunduko diren gastuak:

- **Dirulaguntza konpentsatzaileak:** obrak egikaritzeari dagozkion gastuak, BEZa barne.
- **Dirulaguntza osagarriak:** obren egikaritzeari, proiektuaren idazketari, obra-zuzendaritzari, EITri eta monitorizazioari dagozkien gastuak, BEZa barne.

### **Laugarrena.- Dirulaguntza egozten zaion aurrekontu-kreditua eta, eskuragarri diren kredituen barruan, deialdiko gehieneko dirulaguntzen zenbateko osoa, edo, halakorik ezean, dirulaguntzen kopuru zenbatetsia.**

Laguntza hauen finantzazioa 420.000 €-ko udal-ekarpen ekonomiko baten kargura egingo da, 2023ko ekitaldiko aurrekontuko 1.0200.780.02.152.20 partidan jasotakoa, eta bi urteko epean gauzatuko da, 2023an eta 2024an.

Aurrekontu-kreditua agortu delako eskabideak erantzuteke geratzen badira, organo eskudunak hala erabakiz gero, dirulaguntzok egotzi zaizkion aurrekontuaren partida gehitu egin daiteke, ebatzi ez diren eskaera horiei erantzuteko.

### **Bosgarrena.- Dirulaguntza emateko prozedura.**

Dirulaguntza zuzeneko araubidean emango da, sarrera-hurrenkeraren arabera, eta banakako ebaluazio- sistemaren bidez.

“Banakako ebaluazio”tzat zera ulertzen da: prozedura bat, non espedienteak aurkeztu ahala tramitatzen eta ebazten joaten diren, baldin eta horretarako kreditu erreserbatua badago.

### **Seigarrena.- Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak.**

Dirulaguntza hauek eskuratu ahal izango dituzte aurreko bigarren atalean ("dirulaguntzaren xedea") aipatutako higiezinen Jabeen Erkidegoek, betiere honako baldintzak betez gero:

- Ez egotea sartuta 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan eta gainerako antzeko araudian ezarritako debekuren batean.
- Txonta auzoko bizitegi-eraikinak osorik birgaitzeko jabe-erkidegoentzako dirulaguntzen onuradun izatea; dirulaguntza horiek 2018ko uztailaren 24an onartu zituen Udalbatzak.
- Oinarri-deialdi hauen hamaseigarren atalean bateraezintzat jotako dirulaguntzen onuradun ez izatea.



### **Zazpigarrena.- Eskabideak aurkezteko epea eta tokia.**

Dirulaguntzak eskuratzeko eskabidea aurkezteko epea, deialdi honen laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta **2023ko abenduaren 20an amaituko da (egun hori barne)**; eskabidea, dokumentazio erantsiarekin batera, deia egiten duen organoari zuzenduko zaio onuradunak edo haren izenean diharduenak izenpetuta.

Eskaerak elektronikoki aurkeztuko dira [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) udal-webgunearen bidez. Izapidea elektronikoki egiteko, ziurtagiri digital bat eduki behar da (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.).

Kudeaketarako Hurbiltasuneko Bulego Teknikoak (Txonta Bulegoa) laguntza emango die hala eskatzen duten jabe-erkidegoei Eibarko Udalari zuzendutako izapide elektronikoak egiteko.

### **Zortzigarrena.- Aurkeztu beharreko dokumentuak eta informazioak.**

Dirulaguntza izapidetzeko, interesdunak hainbat datu eta dokumentu aurkeztu behar ditu, aplikatzekoa den araudi erregulatzailleak eskatutakoak.

Hala ere, interesdunek eskubidea dute Eibarko Udalaren esku dauden datu edo dokumentuak ez aurkezteko (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikulua):

- Beste edozein Administrazio sortutako dokumentuak.
- Jatorrizko dokumentuak (salbuespen gisa, aplikatzekoa den araudiak kontrakoa ezartzen ez badu).
- Interesdunak aurretik edozein Administrazioan emandako datuak edo dokumentuak.

Era berean, Administrazio Publikoek dokumentuak elektronikoki jasotzeko betebeharra dute, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuei kontsulta eginez (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 155. art.).

Alde horretatik, eta dirulaguntza hau izapidetzeko, Eibarko Udalak datuen bitartekaritza-plataformen bidez edo bitarteko telematikoen bidez kontsultatuko die administrazio publiko eskudunei honako informazio hau, betiere interesdunak ez badio berariaz aurka egiten horiek erabiltzeari; kasu horretan, interesdunak berak aurkeztu beharko ditu dagozkion datuak edo dokumentuak.

- Lege-ordezkaritzaren kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiko lege-ordezkaritzaren erroldan erregistratuta egotea.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzea.



- Gipuzkoako, Bizkaiko edota Arabako Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean edukitzea.
- Eibarko Udalarekiko ordainketetan egunean egotea.

Kontsulta ezin bada egin datuen bitartekaritza-plataformen edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez, Eibarko Udalak, salbuespen gisa, dokumentazio hori aurkezteko eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

Hauxe da elektronikoki bete beharko den formularioari erantsiko zaion dokumentazioa:

- a) Jabekide-erkidegoaren ordezkari gisa diharduen pertsonaren izendapena.
- b) Legezko ordezkariaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko dokumentua. Ez da dokumentazio hau aurkeztu beharrik izango baldin eta ordezkari Gipuzkoako Foru Aldundiko lege-ordezkariaren erroldan erregistratuta badago.
- c) Jabekide-erkidego eskatzailearen banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria. Honako agiri hauetako edozein izango da baliozkoa: banku-laburpena; libreta; banketxeak emandako ziurtagiria edo "Titularra-kontua" inprimakia (eskuragarri dago [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) udal-webgunean, ), behar bezala beteta eta banketxeak zigilatuta.
- d) Honako zerbitzuengatik jabekide-erkidegoak izenpetutako kontratuak, zenbateko eguneratuak barne.
  - Hala badagokio, Eraikinaren Txosten Teknikoa (EIT) idaztea.
  - Hala badagokio, etxebizitzaren monitorizazioaren eta haren jarraipenaren kostuak.
  - Proiektuaren idazketa eta obra-zuzendaritza.
  - Egin beharreko birgaitze-obren exekuzioa.
  - Birgaitze energetikorako eraikinean sartutako instalazio berriak.
- e) Enpresa kontratistak obra egikaritzean izandako aurrekontu-igoeraren justifikazioa egingo du, zuzendaritza fakultatiboaren txostenarekin. Txosten horretan, obraren erabilitako eraikuntza-materialen prezioen zerrenda konparatiboa jasoko da, kontratazioaren datan eta kontratua egikaritzeko datan izandako prezioak alderatuz.
- f) Birgaitze integraleko obraren zenbateko osoa adierazten duen taula, kostu guztiak eta orain arte eskatutako eta/edo aitortutako dirulaguntzak barne.
- g) Eraikinaren elementu bakoitzagatik ordaindu beharreko zenbatekoa adierazten duen taula, bakoitzaren partaidetza-kuotaren arabera.

### **Bederatzigarrena.- Akatsak zuzentzea eta aurre-ebaluazioa.**

Eskabideak deialdi honetan eskatutako administrazio-baldintzak betetzen dituela eta aurreko paragrafoan adierazitako dokumentazioa aurkeztu dela egiaztatzea instrukzio-organoaren eskumena izango da. Organo horrek zuzenketa eskatu ahal izango du, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 23.5 artikulua arabera. Eskatutako dokumentazioa aurkeztu ezean, edo hamar laneguneko gehieneko epe luzaezinaren barruan akatsak zuzendu ezean, eskabidean atzera egin dela joko da.



### **Hamargarrena.- Dirulaguntzen zenbatekoa.**

- **Dirulaguntza konpentsatzaileak:** Birgaitze integraleko obren egikaritze-aurrekontuaren gaineko gehikuntza estaliko dute, BEZa barne; egikaritze-aurrekontu hori Jabe-erkidegoak onartu eta kontratatukoa izango da, eta 2018ko uztailean onartutako deialdian aurkeztutakoa; gehikuntza hasierako aurrekontuaren % 10ekoa izango da gehienez. Igoeraren arrazoa eraikuntzako materialen prezioen igoera edo obrak egitean sortutako beste zirkunstantzia batzuk izan behar dira. Enpresa kontratistak igoera hori justifikatu egin beharko du, obra-zuzendaritzak txostena egin eta jabe-erkidegoak onartu.
- **Dirulaguntza osagarriak:** aitortutako laguntza guztien edota Erkidegoak eskubidez jaso ditzakeen dirulaguntza guztien eta eraikinaren birgaitze integralaren guztizko kostuaren (obrak gauzatzeari, proiektua idazteari, obra-zuzendaritzari, EITri eta, hala badagokio, monitorizazioari dagozkien gastuak; BEZa barne) % 60aren arteko aldea estaliko dute.

Obrarako erabilitako materialen kostua gehitzeagatik ematen den dirulaguntza konpentsatzailea eskubidez jaso daitekeen dirulaguntzat hartuko da.

Onartutako dirulaguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, Erkidegoak bi dirulaguntza jasotzeko aukera balu —bateraezinak beren artean eta kopuru ezberdinekoak— kalkulu hori egiteko, kopuru handienekoa erabiliko da, nahiz eta azkenean beste laguntza aukeratu. Kasu hori espezifikoki aplikatzen zaie Energiaren Euskal Erakundeak kudeatutako laguntzen deialdiari eta Next generation EB funtsetatik eratorritakoari; izan ere, dirulaguntza bateraezinak izanik, kasu batzuetan erkidegoek bata zein bestea jasotzeko aukera zuten.

### **Hamaikagarrena.- Prozedura izapidetzeko eta ebazteko organo eskudunak.**

Eibarko Udaleko Hirigintza Saileko zerbitzu teknikoek bideratuko dute prozedura.

Dirulaguntza emateko ebazpena Eibarko Udaleko alkateari dagokio.

Onuradunek 15 eguneko epea izango dute dirulaguntzari uko egiteko, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Ulertuko da onuradunek dirulaguntza onartu dutela, baldin eta dirulaguntzari uko egiten diotela berariaz adierazten ez badute goian aipatutako epearen barruan.



### **Hamabigarrena.- Ebazteko eta jakinarazteko epea.**

Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea, 2 hilabetekoa izango da, eskaera egiten den egunetik zenbatuta. Dirulaguntzetako Lege Orokorraren 25.5 artikulua araber, gehieneko epearen muga-eguna iritsi eta ebazpena oraindik jakinarazteke badago, horrek interesatuei legezketasuna ematen die dirulaguntza eskabideari administrazio-isiltasunez ezetza eman zaiola ulertzeko.

### **Hamahirugarrena.- Emandako dirulaguntzen publizitatea.**

Obraren lekuan jartzen den publizitatean, Eibarko Udalaren laguntza jaso dela azalduko da.

### **Hamalauugarrena.- Onuradunak duen epea eta modua dirulaguntza emateko helburua bete duela justifikatzeko.**

Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzak Alkatetzaren ebazpen bidez ordainduko dira, instrukzio-organoak proposatuta, eskatutako egiaztagiria aurkeztu eta, hala badagokio, egiaztatuta ondoren.

Dirulaguntzen ordainketa prozedura honen arabera egingo da:

- a) Lehenengo ordainketa, dirulaguntzaren zenbatekoaren % 45koa, ordaintzeko eskabidea **elektronikoki aurkeztu ondoren egingo da**, Udalaren web-orriko ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)) **DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA izapidearen bidez**.  
Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:
  - Higiezinako etxebizitza guztien jabariaren xedapen-mugaketaren erregistro-idazpena Jabetza Erregistroan inskribatu izanaren egiaztagiria (egiaztagiri guztiak aurkezten ez badira, 12. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio).
- b) Gainerako zenbatekoa justifikazio-kontua egiaztatu eta onartu ondoren ordainduko da. Justifikatzeko modua justifikazio-kontua modalitatearen bidez egingo da; **elektronikoki aurkeztuko da [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) udal webguneko DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA izapidearen bidez**; eta honako agiri hauek izango ditu:
  - **Obraren exekuzio-fakturak, aurretik aurkeztu ez direnak.**
  - **Obren amaierako ziurtagiria**, haien zuzendari fakultatiboak emana eta sinatua.
  - Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten **beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen xehetasuna** jasotzen duen **ziurtagiria edo adierazpen arduratsua**, zenbatekoak eta jatorria adierazita, Erkidegoko presidentek edo, hala badagokio, idazkariak edo administrazioa daraman pertsonak emana.
  - **Oinarrizko proiektuaren edota Egikaritze proiektuen fakturak, obren zuzendaritza fakultatiboarenak eta egindako beste lan tekniko guztienak.**



**Obrak egiteko gehieneko epea 2024ko ekainaren 30ean amaituko da.**

Dirulaguntzaren helburua bete dela eta jasotako funtsak aplikatu direla **justifikatzeko epea** (onuradunek egindakoa) **2024ko abuztuaren 31n amaituko da.**

**Hamabosgarrena.- Dirulaguntzaren zenbatekoa itzultzea inter vivos eskualdatzeen kasuan.**

Emandako laguntzak itzuli egingo direla bermatzeko eta ekintza publikoak birgaitze-proiektuaren garapenean sortutako gainbalioetan Administrazioak parte hartuko duela bermatzeko, elementu pribatiboengatik jasotako dirulaguntzen zati proportzionala (Jabeen Komunitatean duten partaidetza-kuotaren arabera) itzuli beharko zaio Udalari, diruz lagundutako eraikina osatzen duten etxebizitzak edo higiezinetakako elementuak inter vivos eskualdatzen diren kasuetan.

Birgaitzeko dirulaguntzen xede diren higiezinak ezin izango dira inter vivos eskualdatu obraren amaierako ziurtagiria ematen denetik 10 urteko epean, baldin eta saltzaileak alde aurretik egiaztatzen ez bada eskualdaketa xede den elementuari egotz dakizkiokeen laguntzak itzuli direla; jasotako dirulaguntzak itzulketa egiten den unean eguneratuta egongo dira, "Itzulketaren oinarria. 6. Taulan" jasotako ehunekoen arabera.

Aurrez aipatutako helburuetarako, ez da eskualdaketatzat hartuko etxebizitza osoa haren titularkideetako bati esleitzea, baldin eta ezkontza-banantzeen, dibortzioen, edo izatezko bikotearen hausturaren ondorio bada, edo bizikidetzata-batasuna haustearen ondorioa bada, lehen graduko odolkidetasunaren bidez batutako kideen kasuetan.

Etxebizitzen eta lokalen titularrek dirulaguntza jaso izanaren egiaztatzea aurkeztu beharko dute dagokion Jabetza Erregistroan, non, administrazio-dokumentu horretan oinarrituz, legedi hipotekarioaren arabera dagokion jabariaren mugatze xedatzailearen erregistro-idazpena egingo den.

Baldin eta higiezinaren etxebizitza eta lokal baten edo batzuen jabariaren xedapen-mugaketaren erregistro-idazpena Jabetza Erregistroan inskribatu izanaren egiaztatzea aurkezten ez bada, emandako dirulaguntza murriztu egingo da jabetza horizontalaren banaketan elementu horiei higiezinaren guztizkoan esleitutako partaidetza-kuotari dagokion ehunekoan.

Obrak gauzatzeko prozesuan zehar eta obraren azken ziurtagiria egin arte, soilik itzuliko dira laguntzak baldin eta eskualdatzaileak etxebizitzen titularrak badira baina etxebizitza ez bada beren ohiko bizileku iraunkorra, edo lokalen titularrak badira baina jarduerara beren kontura atxikita ez badaude. Gainerako kasuetan, titular berria lehengo pertsonaren posizioan subrogatuko da, epe osoa bete arte geratzen den denborarako.

Jasotako dirulaguntza honako irizpide hauen arabera itzuliko da:

- Beren ohiko bizileku ez diren etxebizitzaren edo beren konturako jarduerari bati atxikita ez dauden lokalen titular diren pertsona fisiko edo juridikoek dirulaguntza eman izanaren ziurtagiriaren balioaren % 100 itzuli beharko dute, bai dirulaguntza ematen bada proiektua gauzatu bitartean (laguntza ematea ebatzi ondoren), bai obren amaierako ziurtagiria eman ondorengo hamar urteetan ematen bada ere.
- Etxebizitzaren eta lokalen gainerako titularrek, inter vivos eskualdatuz gero, honako taulan agertzen den ehunekoa itzuli beharko dute:

**Taula. Itzulketaren oinarria**

<b>ESKUALDAKETAREN DATA</b>	<b>ITZULKETAREN EHUNEKOA</b>
Obra egin bitartean edo lehen urtean	100
Bigarren urtean	91
Hirugarren urtean	82
Laugarren urtean	73
Bosgarren urtean	63
Seigarren urtean	53
Zazpigarren urtean	43
Zortzigarren urtean	33
Bederatzigarren urtean	22
Hamargarren urtean	11
Hamargarren urtetik aurrera	0

Itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, jabekideen erkidegoari emandako laguntza hartuko da oinarritzat. Dirulaguntza horri eskualdaketa xede den elementuak dirulaguntzan duen partaidetza-kuota eta igarotako denborari dagokion itzulera-taularen portzentajea aplikatuko zaizkio.

Itzuli beharreko zenbatekoek zuzenbide publikoko diru-sarrerara izaera izango dute eta betearazpen-bidetik exijitu ahal izango dira.



**Hamaseigarrena.- bateragarritasuna ala bateraezintasuna edozein administraziotatik edo erakunde publiko edo pribatutatik, erakunde nazionaletatik, Europako Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik eratorritako helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.**

Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu edo xedean bat datozen beste administrazio publiko batzuek edo beste entitate publiko zein pribatu batzuek emandako beste laguntza batzuekin.

Bi dirulaguntzak, konpentsatzaileak eta osagarriak, bateragarriak izango dira Udalak 2018ko uztailaren 24an Txonta auzoko eraikinak birgaitzeko jabe-erkidego eta norbanakoentzako deitutako dirulaguntzekin.

Bi dirulaguntzak, halaber, bateragarriak izango dira, eskubideen titular bakoitzari banaka legezkiokkeen honako laguntza hauekin:

- Eraikin eta etxebizitzak birgaitzeko partikularrentzako laguntzak, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriak direla-eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2006ko abenduaren 29ko Aginduan jasotakoak (2007ko urtarrilaren 25eko EHAA); gehienez ere jarduketan kostu osoa osatu arte.
- Energiaren Dibertsifikazio eta Aurrezpenerako Institutuaren dirulaguntzen programaren deialdiko oinarri arautzaileetan jasotako dirulaguntzak, lehendik dauden eraikinen birgaitze energetikorako; gehienez ere eraginkortasun energetikoko esku-hartzeen kostu osoa osatu arte.

Ez dira bateragarria izango Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak jabekideen erkidegoen alde eman ditzakeen dirulaguntzekin, ez eta Udalak igogailuak instalatzeko eta fatxadak zaharberritzeko urtero ematen dituen dirulaguntzekin ere.

Azkenik, prezioen igoera konpentsatzeko dirulaguntzak ez dira bateragarriak NextGenerationEB Europako funtsekin finantzatzeko dirulaguntzekin.

**Hamazazpigarrena.- dirulaguntzak ematerakoan ezarritako baldintzetan egon daitezkeen ez-betetzeak mailakatzeko irizpideak, horrelakoetan onuradunak azkenean jasoko lukeen zenbatekoa zehaztu ahal izateko, edo hala balitz kasua, itzuli beharko lukeen zenbatekoa zehazteko.**

Dirulaguntzak emateko ezarrita zeuden baldintzaren bat edo batzuk DLOaren 37. artikulua ezarritako moduan betetzeke uzteak edo baldintza garaiz kanpo betetzeak — lortu nahi den helburu publikoa lortzeko baldintza guztiak betetzea edo epea betetzea erabakigarria denean— eskubide osoa erabat galtzea eta, hala balitz kasua, jasotako dirua itzultzea dakar.



Administrazioaren zerbitzuek finantza-egiaztapen edo -kontrol bat egiten dutenean agerian geratzen bada egindako gastu guztiak edo batzuk ez direla ordaindu, dirulaguntza kobratu ondoren, eta hartzekodunek eskatu ahal badituzte, itzulketa eskatuko da proportzionaltasun-printzipioa aplikatuz; horretarako, ordaindu gabeko gastuen proportzioan hartuko da itzulgarritzat dirulaguntza.

**Hamazortzigarrena.- Dirulaguntza arloko administrazio arau-haustek eta zehapenak. Zehapen-prozedura.**

Gai honetan, EIBARKO UDALAREN DIRULAGUNTZETARAKO ORDENANTZA OROKORRAREN VI. TITULUAK ezarritakoari egingo zaio kasu.

**Hemeretzigarrena.- Ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dion adieraztea.**

Ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari; horren kontra, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epea dago Ebazpena eman zuen organoari zuzendutako berrazterketa-errekurtsoa jartzeko, edo, bestela, hile biko epean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako Epaitegian (Atotxako Justizia Auzitegia, Teresa de Calcuta plaza 1).

**Hogeigarrena.- Datu pertsonalen babesa.**

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko du Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa eta aplikagarri diren gainerako xedapenak.

Datu pertsonalen tratamenduak Hirigintzako administrazio-espeditenteen tratamenduari laguntza informatikoa ematea du xede, aintzat hartuta interesatuak emandako baimena eta tratamendu-arduradunari esleitutako ahalordeak, zeinak jasota dauden hurrenez hurren datu pertsonalak eta haien zirkulazio librea dela-eta pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Araudiaren 6.1 artikulua a) eta e) letretan.

**Tratamenduaren arduraduna:** Eibarko Udalaren Hirigintza Saila. Telefonoa: 943 708408. Emaila: [hirigintza@eibar.eus](mailto:hirigintza@eibar.eus)

**Eskubideak:** Gogorarazi behar da datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, transferitzeko, aurka egiteko edo mugatzeko eskubidea dagoela, eta Eibarko Udaleko tratamendu-arduradunari idatzizko jakinarazpena bidali behar zaiola helbide honetara: Untzaga plaza 1, 20.600 Eibar (Gipuzkoa). Bidali behar diren datuak hauek dira: izen-abizenak, jakinarazpenetarako helbidea, eskatzen dena, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.